**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**

**19/2022 TXOSTENA**

| |
|---|
| **Gaia:** Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa<br><br>**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0105 (2022)<br><br>**Sail tramitatzailea:** Ekonomia saila. Errentak<br><br>**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua |

## 1. Aurrekariak

Lehena.- 2022ko maiatzaren 2ko Errenta Arloko teknikariak Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa onartzeko proposamena egin du. Proposamenaren beharrizana dago, Konstituzio Auzitegiko jurisprudentziaren ondorioz, Hiri-lurraren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Arauaren aldaketetara egokitzeko (azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez aldatutako Foru Araua).

Bigarrena.- Espedientean, besteak beste, hurrengoak jaso dira:

- Ordenantza fiskalaren aldaketa egitasmoaren testua
- 2022ko maiatzaren 2ko errenta teknikariaren erabaki proposamena
- Kontuhartzailearen adostasunezko fiskalizazio txostena

## 2. Oinarri juridikoak

### 2.1. Aplikagarria den araudia

- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua
- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua



CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

- Hiri-lurraren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 8/1989 Foru Araua (Azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu Arauemailearen bidez aldatua)
- -Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko xedapen orokorrak eta zuzenbide arrunteko manuak, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubideari buruz Indarrean dauden Lege Xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

## 2.2. Hausnarketa juridikoa

### Ordenantza fiskalei buruz

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru-Arauaren 4.1. artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1.a) artikuluak udalei ordenantza fiskalak onartzeko ahalmena esleitu die.

Halaber, nork bere burua antolatzeko ahalmena ere esleitu dizkiete, eta horren arabera, toki erakundeek, haien eskumenen barruan, estatuko edo autonomia erkidegoko legeek xedatutakoa garatzeko ahalmena dute. Horrek esan nahi du izaera orokorreko eta legea baino beheragoko mailako administrazio xedapenak eman ditzaketela, baina xedapenok inola ere ezin izango dute legez kontrako manurik jaso.

### Zergei buruz

Zergen inguruan 9/2005 Forua Arauaren 20.artikuluak dio:

*"1. Las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, deberán exigir, de conformidad con las normas y disposiciones que los regulen, los siguientes impuestos:*



CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

*a) Impuesto sobre Bienes Inmuebles.*

*b) Impuesto sobre Actividades Económicas.*

*c) Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.*

*En el supuesto de que las Entidades Locales decidan hacer uso de las facultades que en relación a estos impuestos les reconocen las Normas Forales respectivas, deberán acordar el ejercicio de las mismas y aprobar la oportuna ordenanza fiscal.*

*2. Asimismo, las Entidades Locales de este Territorio Histórico, en el marco de los principios establecidos en la presente Norma Foral y previo acuerdo de imposición y aprobación de las ordenanzas fiscales correspondientes,* ***podrán establecer y exigir:*** *a) Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras. b)* ***Impuesto sobre el Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana."***

**Jarraitu beharreko prozedurari buruz**

Ordenantza fiskalak aldatzeko prozedura 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan jaso da:

*"1. Los acuerdos provisionales adoptados por las corporaciones locales para el establecimiento, supresión y ordenación de sus tributos y para la fijación de los elementos necesarios en orden a la determinación de las respectivas cuotas tributarias, así como las aprobaciones y* ***modificaciones*** *de las correspondientes ordenanzas fiscales, se expondrán en el tablón de anuncios de la entidad durante treinta días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.*
*2. Las Entidades Locales publicarán, en todo caso, los anuncios de exposición en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Asimismo aquellas entidades con población de derecho superior a diez mil habitantes deberán publicarlos en un diario de los de mayor difusión de este Territorio Histórico.*

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

*3. Finalizado el período de exposición pública, las corporaciones locales adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la ordenanza, su derogación o las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional.*

*En el caso de que no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario."*

Arau bereko 17. artikuluaren arabera hurrengoak aurkeztu ahal izango dituzte erreklamazioak:

*"a) Los que tuvieran un interés directo o resulten afectados por tales acuerdos.*

*b) Los colegios oficiales, cámaras oficiales, asociaciones y demás entidades legalmente constituidas para velar por los intereses profesionales, económicos o vecinales, cuando actúen en defensa de los que le son propios*

*4. En todo caso, los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto integro de las ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el «Boletín Oficial de Bizkaia», sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación."*

Beraz, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. 17. eta 18.artikuluen arabera eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluak ezarritako prozeduraren arabera espedienteak hurrengoak izango ditu:

1. Udal zerbitzuek Ordenantzaren aldaketaren beharrizana justifikatuko dute

2022ko maiatzaren 2ko errenta teknikariaren erabaki proposamenean beharrizana justifikatu da.

2. Udal zerbitzuek aldaketaren egitasmoaren artikuludun testua prestatuko dute eta erabaki proposamena bideratuko dute.



CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE ::
2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

Espedientean aldaketaren testua jaso da eta 2022ko maiatzaren 2ko errenta teknikariaren erabaki proposamena dago.

3. Aurretiazko fiskalizazio mugatuan kontrakoa esan ezean, kontuhartzaileak txostena egingo du, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen legearen testu bateginaren 214. artikuluaren eta abenduaren 2ko 10/2003 Bizkaiako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 67. artikuluaren arabera.

Kontuhartzailearen adostasunezko fiskalizazio txostena dago espedientean.

4. Idazkariaren txostena beharko da.

5. Informazio Batzordearen irizpena beharko da.

6. Ondoren, Osoko Bilkurak hasierako onarpena emango dio, gehiengo soilaz.

7. Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 eguneko gutxieneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta probintziako islada handiko egunkari batean.

Epe horren barruan, interesdunek espedientea aztertu dezakete, bai eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ere.

8. Aipatutako epearen barruan aurkeztu diren erreklamazio nahiz iradokizun guztiak ebatzi beharko dira, eta Osoko Bilkurak behin betiko onartuko ditu ordenantza fiskalak (aurretiaz Informazio batzordearen irizpena beharko da).

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, ulertuko da Ordenantza automatikoki behin betiko onartuko dela. Ondorio horietarako, Idazkariak ziurtagiria egingo du hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela egiaztatzeko.

9. Behin betiko erabakia (espresua edo automatikoa) eta aldatutako ordenantzen testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Ez da indarrean sartuko argitaratze hori gauzatu arte.

Aurretiazko kontsulta publikoa dela eta, urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 133.1 artikuluan aurretiazko kontsulta publikoa

CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

ezartzen da ordenantzak onartzeko prozeduran. Hala ere, kasu honetan eraldaketa baten aurrean gaudenez, eta 2018ko urtarrilaren 10eko Estatuko Idazkaritzaren Tributuen zuzendaritza orokorraren txostenarekin bat etorriz, ez da beharrezkoa ikusten aurretiazko kontsulta hori egitea, nahiz eta praktika on bat izan.

**Eskumenari buruz**[1]

Bermeoko Udaleko osoko bilkurari dagokio ordenantza fiskalak onartu eta aldatzeko eskumena, gehiengo soilez.

## 3. Ondorioa

Aurreko guztia kontuan hartuz, **aldeko txostena** egiten zaio Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa onartzeko proposamenari.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, txosten hau ez da loteslea eta Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia

[1]Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundeen Oinarriak arautzen duten Legearen 22.2.d artikuluaren arabera.

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

CSV: 07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E6000996F300V0N0W1C4C0V0

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 05/05/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/05/2022 13:44:53

EXPEDIENTE :: 2022IDA_ERA_0105
Datea: 29/04/2022
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia